2012-2013 ikasturtea

# Izena emateko eta matrikulatzeko pausoak

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA
FACULTAD DE HUMANIDADES Y CIENCIAS DE LA EDUCACIÓN
MONDRAGON UNIBERTSITATEA

1. PAUSOA

## Izena eman

Izena HUHEZI fakultatean, edo MUko beste fakultateetan, eman daiteke dagokion Idazkaritza Akademikoan,abenduaren 1etik ekainaren 15era bitartean (ordutegia: 8:30-12:00 eta 14:30-17:30).

Beste aukera bat da unibertsitatearen webgunetik (www.mondragon.edu) ematea izena, bertan azaltzen diren pausuak jarraituz.

Kasu bietan, dokumentazio hau behar da:

- Inskripzio-eskaera beteta(*).
- NAren fotokopia.

2. PAUSOA

## Dokumentazioa ekarri

**Inskripzioa egin duzun Fakultatera**

**Graduko ikasketetarako zer ekarri (epea: ekainaren 23ra arte).**

a) Batxilergotik: selektibitate-txartela.

b) Goi Mailako Heziketa Zikloetatik: espediente akademikoa.

c) Unibertsitate titulua edo unibertsitate ikasketak hasita dituztenak: ikasketen espediente akademikoa.

d) Sartzeko probak gaindituta dituzten 25 urtetik gorako ikasleak: proba gaindituta duenaren ziurtagiria.

(*)Oharra: emandako datuak egiazkoak ez badira edo eskatutako dokumentazioa ekartzen ez bada, ikaslea hautatze-prozesutik kanpo geratuko da.

3. PAUSOA

## Onartuen jakinarazpena

Hautatze-prozesua amaitzen denean, ikasleei onartuak izan diren edo ez jakinaraziko zaie inskripzioa egin duten plataformaren bitartez, data hauetan:

- Graduko ikasketak: uztailaren 2an.

Matrikula epea bukatutakoan, erreserban gelditzen diren hautagaiekin telefonoz jarriko gara harremanetan plaza libreak sortzen diren heinean.

4. PAUSOA

## Matrikula formalizatu

Onartua izan bazara, matrikula egitera etorri behar duzu HUHEZIra, honako datetan:

- Graduko ikasketak: uztailaren 2tik 9ra.

ORDUTEGIA: 08:30–12:30.

Oharra: uztailean plaza libreak gelditzuz gero irailean beste matrikula epe bat zabalduko da.

**Zer ekarri behar duzu matrikula egiteko:**

- Argazki bat, originala, karneterako neurrikoa eta atzean izen-abizenak idatzita.
- NAren fotokopia.
- Kontu korronteko libretaren fotokopia.

*Eskoriatzan, 2011ko abenduaren 1ean*